

B

BARREN

TOKIKOM

Emaidazu eskua



KARAKATE jatetxea



*Otsailak 4a, festa giroan,
Santa Ageda bezpera.
Gure barruak berotu asmoz
joan ginen zuenera.*

*Santa eskeko taldearekin
ondo portatu zerate;
jan eta edanak ederrak zeuden,
mila esker, Karakate.*

Elgoibarko Izarrako
Santa Ageda taldea



LAGUNAK KOLTZOI DENDA-TEXTIL HOGAR


**LAU URTAROETARAKO
NORDIKO KIT-ETAN
%25EKO DESKONTUA**

Aukera berria!




**COLCHÓN
DUNLOPILLO EMOCIÓN.**
2011ko azaroan OCÜren azterketan
onenaren sariajaso zuen.

DUNLOP E2
FUJO
TALDEA
edo
DUNLOP E2
TALDEA



EPSILON FUJO
SOMIERA



EPSILON ELÉCTRICO
SOMIERA

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



ALCANTARA

OLDSAN

terxy

Oihana
Ohe geriatrikoez

KEYTON[®]
Masajedun besauekialak



Eraldaketa sozialaren alde, erantzuna eta erabakia gure esku

Jendarte osoa ordaintzen ari da banketxe eta iruzurgile inmobiliarioen diru-goseak sortutako krisia. Espekulazioak finantza-sistema bera ezandarazi egin du, eta orain sistema honek denona den diru publikoa behar du ekonomia berpizteko. Horregatik diru publikoa boteretsuenen interes eta negozioetara bideratzen ari dira.

Espainiako, Gasteizko eta Iruñeako gobernuak, interes ekonomiko eta finantzarioen morroi, krisi egoerak eskatzen duenaren kontrako noranzkoan ari dira: sektore publikoa murriztu eta horren pribatizazioa martxan jarri. Euren irabazi-tasari eusteko orain zerbitzu publikoak negozio bihurtu nahi dituzte.

Krisia sortu zutenetik hartutako neurrien ondorioz, egoerak nabarmen egin du okerrera: langabezia gora doa, langileon eta herritarron eskubide eta lan eta bizi baldintzak okerrera doaz, eta gero eta pertsona gehiagok behar dituzten laguntza sozialak murrizten dituzte. Euren helburua, krisiak sortzen duen beldurraz baliatuz, ongizateko estatua suntsitzea da: lan-eskubide eta eskubide sozialak desagertaraztea.

Egoera honen aurrean erantzun beharra dugunez, bihar larunbata, Hego Euskal Herriko lau hiriburutan manifestazioak antolatuta dituzte Alternatiba, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Ezker Abertzaleak. Donostia-

koa 17:30ean irtengo da Bulebarretik. Baina erantzutea ez da nahikoa: lau alderdi horiek burujabetza politiko eta ekonomikoa oinarri duen alternatiba zabalduko dute datozen asteotan.

Soilik gure politika ekonomiko, sozial eta laboralak erabakitzeko ahalmenarekin irtengo gara krisi honetatik. Estatu espainiarrak ezartzen dizkigun errezeta neoliberalak eskubide murrizketak ekartzeaz gain, zulo beltzera garamatzate. Espainia barruan ez dago irtenbiderik, hondamendira doan itsasontzia da eta lehenbailehen egin behar dugu salto. Gure herri izaerari eusteko, urteetan independentzia askoren nahia izan bada, orain hori baino gehiago da. Denon behar bilakatu da. Ekonomikoki bizirauteko erreminta.



Juan Karlos Marcos

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Soilik gure politika ekonomiko, sozial eta laboralak erabakitzeko ahalmenarekin irtengo gara krisi honetatik”

12

HILABETE
INTERESERIK
GABE!



389€

32" edge LED
HD ready
USB - ethernet
SONY KDL32EX421
Telebista



499€

1200 bira, 7 Kg
AEG-A++ L62850L
garbitzailea



429€

Conbi
SAMSUNG
RL47 LCSW
No-Frost
clase A+
188x59'5x64'6

* Barneko prezioaren onarpenari lotuta. %2ko komisioa kontu zabalitzerakoan, balokoa akats tipografikoen egon ezaren edo produktuen amiarerako. 2012-02-29

MILAR

BIRE

Ubitarte 11
 943 741 487
 bire@milar.es

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Mendebaldeko Sahararen aldeko elikagai eta botiken bilketan aurten ere lagundu dituzten farmaziei, ikastetxetara eta supermerkatuei (Dia, Eroski, Netto) eskerrak eman nahi dizkiegu. Eta, jakina, elikagaiekin bere alea jarri duten elgoibartar guztiei ere.

Eibar-Sahara elkarteak

Eskerrik asko

Elgoibarko Odol Emaileen elkarteak eskerrik eman nahi dizkie elkartearekin kolaboratzen duten elgoibartar guztiei, eta bereziki, ondorengoak eskertu nahi dituzte: odol emai-leak, elkarteko bazkideak, Udala, Correos-eko langileak, Ibar Txiki eta Julio Bueno ar-dandegiak, Eroski, Altxolako Urak, Txankakua, Euskadiko Kutxa eta prentsako berrie-maileak.

Guztion laguntzari esker, 2011. urtean, 586 odol poltsa eman dizkio Elgoibarko elkar-teak Donostiako Odol Bankuari. Beste behin ere, odola ematera dei egiten diegu herritarrei, eta bereziki, gazteak animatu nahi ditugu.

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak

Eskerrik asko

Hotza iragarri zuten otsailaren 4rako; hotz handia. Eta baserri-bideetan izotza eta elurra izango genuela ere entzun genion bati baino gehiagori. Kezka edo ardura usainak inguratu gintuen derrepentean. 1993tik hutsik egin ga-be jardun ondoren, aurten kale egingo al diegu baserriarrei? Tradizioaren soka eteteko gauza izango da eguraldia?

Elur zuriari begira esnatu ginen zapatu goizean, baina erabakia hartuta geneukan: bagoaz! Bagoaz baserri-auzoetara, eskean eta kantuan; bagoaz baserriarregana, Santa Agedaren laguntza eskaintzera. Sekula baino arropa gehiago jantzita, 36 lagun inguru hurbildu ginen Plazara goizeko hamarretan.

Elkar agurtu eta taldeko erretratua atera ondoren, bi taldetan banatu eta, beti bezala, baserri-auzoetako bideak hartu genituen. Idotorbe eta Aiastia auzoetako etxeetara jo

zuen talde batek. Besteak, berriz, Arriaga, Altxola, Sallobente eta Urruzunoko etxeetako arrastoa hartu zuen. Egun osoa hara eta hona eman ondoren, ez ginen denera iritsi, baina 60 baserri baino gehiago koplatu genituen. Hamaikak aldera iritsi ginen bi taldeak Aiastia soziedadera. Han zeuden zain Agustin eta Balentin, guretzako prestatutako berakatz-zopa eta gisatua plateretara ateratzeko pronto.

Hotza iragarri zuten otsailaren 4rako, hotz handia, baina urteko egunik goxoenetako bat izan zen guretzat. Kanpoko hotzak baino indar handiagoa izan zuen baserri-atarietako berotasunak.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldeak



Angel
Bazterretxea

Kaixo, Iñigo: Bate-
ren bati entzun nion
behin negua azkar pasa-
tzeko era edo modua hauxe
izango zela: azaro aldean bankuko

letra bat firmatu hurrengo apirilian ordaintzeko. Baina gakoa
hemen dago: dirurik izan ez, eta egunak berehalaxe igarotzen
direla eta ordaintzeko eguna gero eta hurrerago dagoela senti-
tzen duzu. Zuk eta nik ez daukagu BARRENEKIN zorrik, baina guri
ere azkar pasatzen zaigu idazteko epea. Beno, buruari buelta eta
buelta ematen nabil, zer idatzi asmatu ezinik.

“Gaurko poesia lirikoa ala dramatikoa izango litzateke? Zuk zer uste duzu, Iñigo”

Azken-azkeneko munduko berriak hauetxek dira, beste asko-
ren artean: Egiptoko futbol zelai batean dozenaka lagun hil dira-
la, oraintxe bertan elurra ari duela gure inguruan, gero eta langa-
be gehiago daudela, Mendaroko ikastetxeko horman irakurri dai-
tekeen bezala heziketa duin baterako eskubideak ez murrizteko
eskaera... Jendearekin hitz egiten badugu, kezkek azaltzen dira
gure inguruan, eta abar eta abar luzea, eta ez guk nahiko genu-
keen poza. Eta horrelako gauzak gogoraraztean, zer asmo ote
daukadan galdetuko didazu, Iñigo. Asmo konkreturik ez, baina
neguko arratsalde hotz honetan, gure inguruak zuri-zuri ikusita,
baten batek, beharbada, poesi polit eta sakon bat egingo du. Ez
litzateke txarra izango, baina ez dakit poesia hori lirikoa ala dra-
matikoa izango litzatekeen. Zuk zer uste duzu, Iñigo? Trajedia ala
poesia izango litzateke zure idatzia? Bueno utzi dezagun trajiko-
median. Gero arte.



Iñigo
Lazkano

Poesiak nik? *Jajaja*.... Horrek segittuan
amaitzen dira!!! Gauza asko ilara gutxixan kon-
primiduta kontatzea ez da nere fuertia, Don An-
gel, eta hori badakixe ELGOIBARRENEKO gure je-
fiek, beti pare bat aldiz rebisau bihar izaten det
testu hau eta. Anekdotak kontatzen hasten naiz
eta... konturatzerako jan dittut nere 1.600 ka-
rakteriak.

Beraz, argi xamar dago neri poesiarik ez zitza-
tala irtengo egun hauetan, baiña bueno, idatzitxo bat
edo beste bai, eta zure galderara bueltatuz, esango nuke
idatzi hori trajikua ez zala izango. Komikua izatian mailara ere, akaso, ez
zan ailleauko, baiña bueno, gutxienez intentauko neuke, ni neu umore
onez jartzeko bada ere.

“Mundua nahikua tristia bada bestela ere, gu geu historixa deprimentiak kontatzen hasteko”

Mundua nahikua tristia bada bestela ere, eta gaiñera geu hasten
bagera historixa deprimentiak kontatzen... puufff, akaboo!! Gehixago
sartu zuluan, gaiñera. Hori ez! Hortik atera egin bihar da, egoerai buel-
tia eman eta alde positibua topau. Ixa-ixa danak izaten degu alde on
hori, baiña norberak ere nahi izan bihar deu, hau da, topatzeko, billau
egin bihar dala, hain zuzen ere.

Oin dala 2-3 aste egoera nahiko “nazkagarri” bat sufritzia suertau
zitatan. Objeliboki hartuta, “anekdota” haura ez zan batere gustagarri-
xa, baiña nerekin zagan lagunak eta bixok imajinazio pittin bat bota
genion egoerari, gure pelikulatua montau gendun eta...jajaja... há-
rek ziran barriak egin genduzenak. Hurrengo egunian, bizikletan nixela
Sasiola aldiari zihar, berriz akordau nitzan eta ixa lehertu nitzan barrez.
Pedalak ematiari laga egin bihar izan nion! Eta hori, lehen esan deten
bezala, “anekdotia” ez zala batere gustagarria. Eskerrak!!! Baten ba-
tek ikusi bazian, pentsauko zuan zorauta nenguala, baiña, hori hobia
izango da ba, anekdotia, *tal cual* hartu eta zulo ilun baten sartzia baiño.



EIBARKO HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA
Jardineta, 3 - 20600 Eibar

2011/2012

MATRIKULA LIBREA Otsailaren 10etik martxoaren 1era

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo 943 200 618 telefonon.

Langabeen %50 zerbitzuen sektorean aritutakoak dira

Ikasteko garaia dela ohartarazi dute

Debabarrenako enpleguaren egoera aztertzeko eta enplegu plan bat zehazteko batzarra egin zuten urtarrilaren hondarrean eskualdeko udaletako ordezkariak, eta bilera hartan datu kezkarriak azaleratu zituzten. Batzarraren ostean jakinarazitako datuen arabera, Debabarrenan lanik gabe dauden hamar langiletik bost zerbitzuen sektorekoak dira, eta bi industria mundukoak. Eraikuntza sektorean lanean aritutakoak eta lehenengo enplegu baten bila dabiltzanak %10a dira, eta %1,4 dira lehen sektorean lanean ibilitakoak.

Prestakuntza egokiaren beharra

Sexua eta adinari dagokionean, berriz, 25 eta 44 urte bitarteko emakumeek osatzen dute langabe talde handiena. Adin tarte horretako gizonen taldeak dira ondorengo talde handiena, eta 45 urtez gorako emakumeek osatzen dute hirugarren talde handiena. Asko dira datu kezkarriak eta kontuan hartzekoak, baina agintariek bat nabarmendu dute guztien artean: hamar langiletik zazpi ez dutela batxilergoa beste titulurik. Hau da, ez dutela prestakuntza profesionalik, ez behintzat hori ziurtatzeko agiririk. Unibertsitate ikasketak dituztenak, berriz, langabeen %9 dira, eta %2 prestakuntza profesionala dutenak. Bada, azken datu hori berresten duen beste datu bat: langabeen %67 prestakuntzarik eskatzen ez duen enplegu baten bila dabiltzala.

Langabezia datuak esku artean hartuta, eskualdeko beharretara egokitutako prestakuntza izatea inoiz baino garrantzitsuagoa dela azpimarratu dute agintariek. Mezua argia da: ikasteko garaia da; ikasi, eta lan merkatuaren beharretara egokitzeko garaia. Horren harira, eskualdeko lanbide heziketako zentroek egiten duten lana goratu dute Debabarrenako udal agintariek.

Oin Alaiko bonoak banatu dituzte

Maria Luisa Osoro Herri Eskolako boluntarioak eta Rosa Maria Daquinta ikastolako boluntarioak irabazi dituzte Oin Alairen abendu eta urtarrileko bonoak. 50 euroko bono bana jaso dute, Txankakua eta Barren Azokako dendetan gastatzeko.

Torturari buruzko bideo emanaldia

Torturaren aurkako egunaren harira, *Tortura Euskal Herrian* izenburuko bideoa eskainiko du ezker abertzaleak domekan, hilaren 12an, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Era berean, astelehenean hitzaldi bat ere izango da Eibarren, Portalean, 19:00etan. Euskal Memoria fundazioarekin elkarlanean antolatu dute hitzaldia.

Debabarreneko garraio publikoaren mapa

Debabarrenan garraio publikoaren erabilera sustatu asmoz, eskualdeko Udalek eta Debegeesak eskualdeko garraio publikoaren mapa banatu dute. Mapa horrek ordu-tegi eta linea ezberdinen gaineko informazio eguneratua eskaintzen die herritarrei. Debegeesako webgunean dago mapa (www.debegeesa.com), pdf formatuan, inprimatu ahal izateko. Mapa honek autobus eta tren-linea guztiei buruzko informazio gaurkotua eskaintzen du formatu bakarrean (ordutegiak, maiztasuna, ibilbideak...), eskualdean soilik garraio publikoa erabiliz mugitzeko aukerak zeintzuk diren azalduz. Garraioaren mapa eguneratua eskuratu nahi dutenek udaletxeetan, herritarren arretarako bulegoetan edota Debegeesako bulegoetan eskuratu ahal izango dute. Era berean, eskualdeko markesina nagusietan informazio-taulak jarriko dituzte.

Zaborra gaika biltzeko ontziak, Peruko haurrei laguntzeko



Hondakinak gaika biltzeko edukiontzia eta behin eta berriz erabiltzeko poltsak salduko ditu Gemma Agirregomezkortak merkatu plazan, eta batzen duen diru guztia Peruko haurrei laguntzeko izango da. Euro batian salduko ditu edukiontzia, eta 0,5 eurotan poltsak. Denda goizez bakarrik egongo da zabalik 10:00etatik 13:00etara. Hilaren 25ean doa Perura Gemma, bi hilabetarako. Miskik 600 haur dauka babestuta han, eta hemen batutako diruarekin gutxien-gutxienez haur horien guztien eskolako matrikulazio gastuak ordaintzen dituzte.

Pertsonaia **Arnaldo Otegi**



Arnaldo Otegi jaso du Gaztezulo aldizkariak banatzen duen II. Gaztezulo Saria. Gaztezulokoek eskura eman zieten saria Otegiaren senitartekoei. Bidenabar, Otegiaren alderdi ez publikoaren berri emateko, Otegiaren lagun, ezagun eta senitartekoekin bildu ziren, eta bideo batean jaso dituzte adierazpen guztiak. Bideoaren amaieran, Otegi beraren esker oneko berbak gehitu dituzte. ElgoiBARREN.net-en daukazue bideoarako lotura.

Irudia **Negu gorria**

Iritsi da negua. *Kandelarioz elurra, joan da neguaren beldurra* dio esaera zaharrak, baina ezin esan neguaren gordina joan denik. Izan ere, negu gorria egin du egunotan. Hotz handia egin du, izotza ere egin du, eta elurra ere bota du, eta ez mendi gainetan bakarrik. Santa Ageda bezperan, kalea zuritu zuen elurrak Elgoibarren, eta eguaztenean, zuri esnatu ziren bazterrak bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Datozen egunetarako ere hotz handia iragarri dute meteorologia zerbitzuek.



Maria Angeles Zabalak irabazi du Soraluzeko san blas opilen lehiaketa

Marka denak hautsi behar ditu Maria Angeles Zabalak. Iaz bezala, bera gailendu da Soraluzeko san blas opilen lehiaketan, eta 70 euroko txekearekin saritu dute. Aurten, bederatzi lagunek parte hartu dute lehiaketan. Bere san blasen arrakasta labeari zor zaiola uste du Maria Angelesekin. "Osagaiak betikoak dira, baina labean denbora gutxi edukitzean dago sekretua".

Autoak eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa IMHn

Energiaren Euskal Erakundeak autoa eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa antolatu du IMHn. Ikastaro praktiko-teorikoa izango da, eta autoaren kontsumoa zelan gutxitu erakutsiko dute. Martxoaren 8an izango da, goizez 9:30etik 13:30era, eta arratsaldean, 14:30etik 18:30era. Ikastaroa doan da, baina izena eman beharra dago, hilaren 24a baino lehen. Informazio gehiagorako nahiz izena emateko 943 744 132 telefono zenbakira deitu behar da (Saioa edo Leire).

Odol ateratzeak egingo dira gaur Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dira gaur Elgoibarren. 18:30ean hasiko dira, eta 20:30ak arte egongo dira anbulategi ondoko lokalean. Odol emaitzen emaitzak ohartarazi du odol premia handia dagoela eta odola ematera dei egin die herritar guztiei, bereziki 18 urtez gorakoei.

Elgoibarren izandako istripu baten lekuko bila ari dira

Urtarrilaren 26an, 19:00ak aldeira, Netto eta Elgoibarko gasolindegira arteko biribilgunean izan zen istripu baten lekuko bila ari dira. Peugeot 206 gris baten eta Renault Laguna ilun baten artean izan zen istripua, Elgoibarrera bidean. Istripu hori ikusi zuenak dei dezala 646 425 294 telefono zenbakira.

ESKUA EMANDA AURRERA

13 urte ditu Itxasok eta lau hilabete zituela ezintasun neurologikoak atzeman zizkieten medikuek. Egoera zaila da etxekoentzat, eta ezezaguna jendartearen gehiengoarentzat, baina euren egoera azaleratu nahi dute Itxasoren ama Maierrek eta Emadazu eskua proiektua bultzatzeko sortu duten Zesatenjuenaz ekoiztetxeok. Lorea Perez de Albeniz da Zesatenjuenaz-eko kide-etako bat, eta berarekin eta Maier Gurrutzaga Itxasoren amarekin jardun dugu berrikeran, eskuartean duten proiektuaren inguruan.

Ainhoa Mendibil Artetxe



Argazkiak: Goiuri Aldekoa-Otalorarenak dira. Eskubideak erreserbatuta daude.

Maier Gurrutzaga

Itxasoren ama

“Itxasori esker ikasi dut jendeari begietara begiratzen eta bakoitza den moduan maitatzen”



Nola hasi zen dena, Maier? Noiz jakin zenuen Itxasok ezintasun neurologikoak zituela?

Hasieran zaila izan zen ezintasunez ohartzea. Lau hilabete zituela, ohiko osasun azterketa egitera eraman genuenean, ez zuela burua behar bezala mantentzen esan zigun pediatriak, eta badaezpada, ona izango litzatekeela neurologoarengana eramatea. Eta halaxe egin genuen. Hainbat froga egin zizkieten, baina frogek ez zuten ezer egiaztatu. Baina denbora pasatu ahala, Itxaso ez zen eserita mantentzen, ez zituen gauzak eskuekin hartzen eta begi bistakoa zen zerbait gertatzen zitzaiola. Bistakoa zen, baina niri kostatu egin

zitzaidan ikustea. Ez nuen nabaria zena ikusterik nahi.

Ezintasun neurologikoak ditu Itxasok, baina zer esan nahi du horrek? Non igartzen dira ezintasun horiek?

Hitz teknikorik erabili gabe azalduko dizut. Azalpen teknikoek erabat zorabiatu ninduten-eta hasieran. Bartzelonako neurologo batek azaldu zidan bezala azalduko dizut, niretzat oso lagungarria izan zelako: imagina itzazu orkestra bat eta orkestra zuzendaria. Musikari batzuek bakarrik egiten diete kasu zuzendariaren aginduei eta gainerakoek nahi dutena jotzen dute. Musikariek musika tresna eskuetan izan arren, ez dute beraien funtzioa betetzen. Deskoordinazioa

sortzen da. Gaur egun, ez du hitz egiten, ez dabil oinez, eta jaten norberak eman behar dio. Horra hor ezintasunak. Baina berak badauka gaitasun bat, "normalak" garenok baino garatuagoa: sentitzen duzunaz erabat ohartzen da, eta edozer egiten diozula ere, beti adierazten du esker ona.

Ez da erraza izango.

Ba ez, ez da erraza. Batez ere ohikoa ez delako eta hasieran, adibidez, ez nuelako izan antzerako ezer bizi izan zuen inorekin hitz egiteko aukerarik. Orduan nahiko galduta sentitu nintzen. Bestalde, gertatzen zenaz ohartzean, zaila izan zen bera "salbatuko" zuen bidea aukeratzea. Estimulazio metodo desberdinak daude, eta berarentzat egokiena zein zen aukeratzean mila zalantza sortu zitzaizkidan. Bataren eta bestearen iritziak entzun eta beldurra sentitu nuen; alaba "salbatuko" zuen edabearen bila moduan ibili nintzen, atsedetik gabe. Baina ez dakit seme-alaba "normalak" dituztenentzat dena erraza izango ote den; ez dut uste. Erreferente gehiago dituzte inguruan, baina erraza...

Nolakoa da Maier eta Itxasoren egun bat?

7:00etan altxatzen gara; batzuetan lehenago. Itxasoren loak ez dira batere erregularrak, eta orduan, gerta daiteke gau osoz lo egitea edo konbultsioak izan eta gauean esna egon behar izatea. Edo besterik gabe ez duela lo egiterik nahi. Horrelakoetan nik berari zera esaten diot: ez zela kasualitatez karnabaletako martitzen gau batean jaio; jaio zenetik parranda-zalea izan dela eta aguantatu egin beharko dugula, nire gurasoek inoiz ni neu aguantatu behar izan nauten moduan. 8:00etan DYako furgoneta batek jasotzen du, eta Loiura eramaten dute eskolara, 17:30ak arte. Hori, gaixorik ez dagoenean. Gero eguraldi ona badago paseatu egiten dugu, eta bestela lasai-lasai etxean geratzen gara.

Berdina litzateke Elgoibarren biziz gero?

Ez. Hori izan zen Bilbora bizitzera etortzearen arrazoia. Zortzi hilabete zituela, Bilboko estimulazio zentru batera eramaten hasi ginen eta orduan Elgoibarren bizi ginen. Hortaz, goizero 8:00etan tren hartzen genuen Bilbora eramateko, eta 16:30ean itzultzen ginen. Hiru ordu ematen genituen joan-etorrian. Horrez gain, beste terapiaren bat egin nahi izanez gero ere, hiriburuek aukera gehiago eskaintzen dituzte: ekinoterapia, musikoterapia, terapia alternatiboak...

Inguruko laguntza ere garrantzitsua izango da horrelakoetan.

Ezinbestekoa. Bai ekonomikoa eta baita emozionala ere. Nire kasuan familiaren laguntza oso-oso garrantzitsua izan da, urruti egon arren: gu Bilbon, eta nire gurasoak Elgoibarren. Biek lan egin dute, eta orain gutxira arte ezin izan dute Bilbora etorri, baina haiei esker izan dugu bizimodu duina, eta ez zaigu ezer falta izan. Eta lagunak ere beti egon dira hor, laguntza eskatu dieidanean. Ez dakit denei eskertzeko beste denbora biziko naizen. Bizitzan zorte handia izan dudala uste dut.

Eta etxeakoak eta lagunak aparte lagata, nola portatzen da jendartea orokorrean, horrelako kasuetan?

Denerakoak daude. Batzuen begiradak oso deserosoak izaten dira eta amorrua ematen dit. Ezezagutzagatik begiratzen dutela pentsatu nahi dut. Batzuetan umeek galdetzen dute nagusiak galdetzera auzartzen ez direna, eta ni beti saiatzen naiz erantzuten. Esaterako, behin haur batek Itxaso zergatik ez zebilen galdetu zidan, eta nik zera erantzun nion: zuk orain badakizu erroketak egiten? Eta berak ezetz. Eta zergatik? Galdetu nion nik. Ba Itxasok berdin; agian egunen batean ikasiko duela ibiltzen, edo ez. Halaxe erantzun nion nik.

Laguntza ekonomikoa aipatu duzu; diru laguntzak nahikoa dira?

Ez. Oker ez banago 2008an sartu zen inarrean Mendekotasun Legea Euskal Autonomia Erkidegoan. Ordura arte ez zegoen inolako laguntzarik, eta beraz, dagoena asko eskertzen da. Jasotzen dena, ordea, ez da nahikoa dituzten gastu guztiei aurre egiteko. Lana eta familia uztartu nahi badira, jasotzen den diru laguntza ez da nahikoa. Orain, adibidez, Itxasori aulkia aldatu behar diogu, eta bere beharretara egokitutako gupildun aulkiaren aurrekontua ia 4.000 eurokoa da. Jasoko dugun diru-laguntza ordea, 2.500 eurokoa da. Beraz, 1.500 euro geure poltsikotik jarri beharko ditugu.

Zein iruditzen zaizu Itxasoren egoeraren alderik gogorrena? Eta politena?

Alderik gogorrena ondo ez dagoela jakin eta sortzen den ez-jakintasuna. Eta politena berak irakatsi dizkidan gauza guztiak. Baina batez ere, baldintzarik gabeko maitasuna. Badakit naizen modukoa izanda maite nauela eta egiten dudana eskertzen didala. Eta berari esker ikasi dut jendearen begietara begiratzen eta bakoitza den moduan maitatzen. Bere ondoan bakea sentitzen da.

Geratu zaizu esan nahi zenuen zerbait esateke?

Bai. Gure egoera antzerakoa bizi duten beste familiei tarte bat egin nahi nieke. Eta tarte hau, nolabait ere, beraiena egin. Nahiz gutxiengo bat izan, zoritxarez nire kasua ez da-eta bakarra.





Lorea Perez de Albeniz

Zesatenjuenaz ekoiztetxearen sortzaileetako bat

“Itxasoren eta haren familiaren errealitatea kontatuko duen dokumental bat ekoiztu nahi dugu”

Zer da Emadazu eskua proiektua?

Emadazu eskua proiektuaren helburua ezintasunak dituzten haurren eta haien familiaren errealitatea ezagutzera ematea da. Helburu horrekin proiektuaren baitan hainbat gauza bildu ditugu, errealitate hori ezagutzera emateko guretzat oso garrantzitsuak direnak; Itxasoren eta haren familiaren errealitatea kontatuko duen dokumental bat ekoiztu nahi dugu, eta horri lotuta, ikastetxeetan erabiltzeko ikusentzunezko materiala ere sortu nahi dugu. Baina oraingoz ikusgarri dagoena, emadazueskua.blogspot.com bloga da. Itxasoren eta Maierren bizitzari buruz zertxobait gehiago jakin nahi duenarentzako informazioa daukagu hor, eta baita antzerako egoeren inguruko informazioa ere.

Zesatenjuenaz produktora sortu duzue horretarako, ezta?

Bai, dokumentala ekoiztetxea sortzeko akuilua izan zen. Aspalditik geneukan gure aldetik lanean jartzeko gogoia, interesgarriak iruditzen zaizkigun proiektuak lantzeko, eta gainera “gure erara” lan egin nahi genuen. Enpresa bat sortzeko erabakia hartzea zaila izan zen, norberaren kontu ardua asko hartzea eskatzen duelako. Baina ari gara, eta ez bakarrik dokumentalarekin. Bitartean beste lan batzuk ere egiten ari gara, enpresetarako bideoak egiten ari gara eta telebistako saio batetako produkzioa daramagu. Azken finean, dokumentala hor dago, baina proiektu gehiago ere badauzkagu buruan bueltaka.

Eta nola sortu zen dokumentala egiteko ideia?

Horretarako egoera egokia sortu zen: Itxaso eskola berrian hastear zegoen, eta

egokitzapena egin behar zuen, eta Maierrek gidatzeko baimenik ez duenez, eta eskola Bilbon bertan ez dagoenez, nik eramaten nituen biak. Bidaia haietan Itxaso oso ongi ikusi nuen, baina, era berean, Maierren erabakiak, beldurrak eta ezinegonak -umeak eskola berri batean hasten direnean edozein gurasok izan ditzakegunak- gertutik ezagutu nituen. Eta ezintasunak dituzten haurren familiek egoera guzti horiek zeinen bakarrik bizi ditzaketen konturatu nintzen. Izan ere, gurasook gure kezak eta ezinegonak elkarri kontatzen dizkiogu, baina zer konpartitu dezakezu, norberaren egoera inondik inora ezagutzen ez duten pertsonekin?

Maierrek eta biok horri buruz hitz egin genuen, eta errealitate hori ezagutzera eman behar genuela esan nion, errealitatea ezagutzeak jendea aberasteko balio dezakeela sinestu izan dut beti. Errealitatea ikuspegi positibo batetik lantzeak horretarako balio zezakeela pentsatu genuen. Proiektuan interesatuta egon zitezkeen bizpahiru lagunekin hitz egin nuen, eta lana gure erara egitea erabaki genuenez, ekoiztetxea martxan jartzea ezinbestekoa zela ikusi genuen. Eta hemen gaude!

Nola doa lana?

Ondo! Dokumentalerako gidoia osatzen joateko elkarrizketak egin hasi gara, sare sozialetan sartu gara, eta Eusko Jaurilaritzak diru laguntza txiki bat eman digu proiektua aurrera ateratzen saiatzeko. Baina momentuz ez da nahikoa, eta proiektu osoa gauzatzeko finantziarioa behar dugu. Dagoeneko hasi gara enpresa eta norbanakoekin harremanetan. Ezintasunak dituzten haurren errealitatea ezagutzera ematea garrantzitsua dela uste duten pertsona eta erakundeekin bila gabiltza, ahal duten mailan eta neurrian, proiektua finantzatu dezaten. Aportazio txikiak eta handiak bilatuko ditugu: Izan ere, handiak oso garrantzitsuak badira ere, txikiak lortzeak jende askok proiektuan interesa duela adieraziko luke, eta hori da gure helburu nagusietako bat. Poliki, baina aurrera goaz. Dagoeneko grabatu ditugu irudi batzuk, Bartzelonara medikuarengana joan behar izan zutenekoak.

Laguntza ekonomikoaren beharra aipatu duzu. Nolako aportazioak eskatzen dituzue?

Norberak nahi duen diru kopurua eman dezake. Gure aldetik, kontakturako helbide bat uztea eskertuko genioke laguntzaile horri, proiektuaren berri ematen joateko eta gure esker ona adierazi ahal izateko. BBK-ko da gure kontua (2095 0349 809111171405) eta esan bezala, emadazueskua.blogspot.com blogean edo Facebook-eko Emadazu Eskua orrian izango duzue gure berri.

Bartzelonara medikuarengana egindako azken bisita aprobetxatu zuten dokumentalerako irudiak grabatzeko.



Erretratu zaharra



1977

Aste honetako erretratua Jon Peli Uriguenek ekarri du BARRENEko erredakziora. 1977. urtean ateratakoa da argazkia, hain justu ere ikurriña legeztatu zuten urtean (1977ko urtarrilaren 19an legeztatu zuten). Urte hartan santa eskean irten ziren Etxegiña taldeko koplariak ikurriñarekin irten ziren estreinakoz, eta momentu hori betiko gordetzeko argazkia atera zuten Sigmako zubian. Aurten, 35 urte pasatu direla-eta, argazki hura errepikatu dute. Hori bai, Sigman barik Txankakuako zubian egin zuten erretratua santa eskean irten ziren 60 lagunek. Aurten atera duten argazkia www.elgoiaBARREN.net-en daukazue ikusgai.



www.elgoibarikastola.eu

elgoibar **ikastola**
1962-2012

eskerrik asko!
gurean izena
eman duzuen
guztioi

943 744441 elgoibar@ikastola.net

Santa eskea, argazkitan

Elurrak jantzi zuen ingurua zapatu goizean, baina horrek ez zituen santa eskaleak beldurtu. Goitik behera ondo estalita eta makila eskuan, bakoitzak bere deialdiari erantzunda batu ziren taldeak. Mendarorarrak, goiztiarrenak, 8:15etarako hasi ziren kantuan. Etxegiñakoak izan ziren hurrengoak: 9:00etan Bolatokian jarri baitzuten zita Elgoibarko kaleak kantuz alaitzeko intentzioarekin. Baita lortu ere. Elgoibarko Izarrako baserriz-baserriko koplariak izan ziren azkenak hasten. Baina ez zitzairen arrazoirik falta. 10:00etan hasi eta 22:00 arteko jarduna izan zuten-eta. Kalamua elkartean prest zeukaten afariarekin bukatu zuten eguna. Bukatu ere, hasi bezala: kantuan, janean eta edanean. Kanpoko hotzak ahazteko modu bakarra izan zuten koplariak: barruak berotzea. Santa Ageda bezpera ez ezik, baina, bezperaren bezpera ere ospatu da aurten Elgoibarren. Ikastolako umeak barixakuan irten ziren-eta kantuan kalera. **Argazki gehiago eta bideoak: www.elgoiBAREN.net**




Egun osoan jardun zuten baserriz-baserrri kantuan Elgoibarko Izarraren deialdira batutakoek.



Hankak hotz eta eztriak bero.

Egunak aurrera egin ahala zakua betetzen joan zen.



Goizean goiz botatako malutek kaleak zuritu zituzten denbora gutxian.



Ziarda eta Narbaiza koplakantari, baserritarrek atea noiz zabalduko zain.



Zapatua izan zenez, iaz baino baserrri gehiagotara iritsi ziren aurten koplariak.



Elurrak eta hotzak ez zuten Etxegiñakoen kantua zatartu.



Estreinakoz emakume ugari irten ziren Etxegiñakoekin.



Bezperaren bezperan ere kaleak kantuz eta kolorez bustita.



Inoiz baino jende gehiago irten zen kantura Etxegiñakoekin batera.



Amaia Agirre bertsolariak jardun zuen kantuan Mendarozabalgo koplariekin.



Ikastolaren 50. urteurrena izan zuten gogoan kalera kantuan irten ziren Ikastolako umeek.



Sahatzuko baserriak pasata, Plaza auzora iritsi ziren.



Mendaroko koplariak Irabane baserriko atarian.

Urtarrilean...

JAIOTAKOAK



Iker Gasteain Ramos
Urtarrilak 11
Ion eta Idurre



Noa Perez Ferreiro
Urtarrilak 18
Ion eta Maria

Nora Peña Apraiz
Urtarrilak 11
Jorge eta Arantza

David Farell Moreno
Urtarrilak 10
Jorge eta Martha

**Ihintza Barrenekeza Gal-
dona** Urtarrilak 9
Imanol eta Eneritz

Ebtisam Zaimi
Urtarrilak 23
El Hassane eta Rachida

Laia Duarte Ibarra
Urtarrilak 29
Andoni eta Naiara

HILDAKOAK

- Rosario Arriaga Olano • 71 urte • Urtarrilak 3
 Jesusa Arozena Garate • 85 urte • Urtarrilak 4
 Julian Juaristi Alberdi • 89 urte • Urtarrilak 5
 Jose Mari Arizabalaga Uriarte • 60 urte • Urtarrilak 5
 Iñaki Insausti Zubiaurre • 83 urte • Urtarrilak 7
 Monserrat Sandoval San Martin • 53 urte • Urtarrilak 11
 Narcisa Duque Sanchez • 85 urte • Urtarrilak 14
 Rogelio Vela Martinez • 75 urte • Urtarrilak 14
 Mari Carmen Gabilondo Etxabe • 59 urte • Urtarrilak 19
 Joaquin Arana Bastida • 86 urte • Urtarrilak 21
 Eugenio Astigarraga Arozena • 89 urte • Urtarrilak 21
 Felisa Iriondo Arrate • 19 urte • Urtarrilak 23
 Florencio Alonso Bisbal • 76 urte • Urtarrilak 25
 Pedro Tesouro Muñoz • 86 urte • Urtarrilak 28
 Bonifacio Gallardo Rodriguez • 83 urte • Urtarrilak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira

943 744 112 telefonora edo bidalie-postaz

barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

Argazkia jartzeagatik 3 € ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, 4 €.


I. URTEURRENA

JOSEFA MUGURUZA ARTETXE

2011ko otsailaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 11, arratsaldeko 19:00etan Altzolako San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.





Ibaitarte industrigune pareko aparkalekua oso arrisksua da: "Ibaitarte industrigune langile askok pareko aparkalekuan uzten dute autoa, eta lanera joateko, errepidea gurutzatzen dute. Neguan gaude, eta goizetan ilun egoten da. Lanera joateko oso goiz pasatzen naiz autoz ingurune horretatik, eta errepidea gurutzatzen duten langile horiekin susto bat baino gehiago hartu izan dut. Ingurune horretan zerbait egin behar da, ez-beharren bat gertatu aurretik. Era berean, bidea gurutzatzen duten langileei eskertuko nieke txaleko argi-islatzaileak janztea, ilunetan hobeto ikus ditzagun".



Elgoibarko Herri Eskolako ate irekien eguna: "Herri Eskolako guraso batek txalo bero bat eskaini nahi die larunbateko ate irekien egunean parte hartu zuten haur, guraso, irakasle, langile, Kalamua guraso elkarteko kide eta festara bildu ziren elgoibartar guztiei. Egun zoragarria pasatu genuen. Jarraitu horrela!"

Eskerrik asko Elgoibarko botika zerbitzua hobetzeagatik: "Izugarri poztu gara Elgoibarren gaueko botika zerbitzua egunero izango dugulako. Herritarrentzako albiste oso ona izan da. Badakit botikarientzat lan handiagoa dela, baina erabiltzaile askok arazo handiak dituzte gauez Sorruzera edo Mendarora joateko botika bila, eta Elgoibarren lau botika egonda, lehenago hartu behar zuten erabaki hau. Niretzako txalotzeko erabakia da, eta espero dut gainera, betirako hartutako erabaki bat izatea".

Txalo bero bat Elur Arrieta Aizpuruari: "Tinbalak jo zituen maisuki, Beethovenen 3. Sinfonia obran, Euskadiko orkestrarekin, joan den astean, Hego Euskal Herriko lau hiriburutan. Zorionak".

Zuen kezak, galderek edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

AISIA DEBA HOTELA

debarestaurante@aisiahoteles.com
Tel.: 943 608 052

SAN VALENTIN EGUNERAKO MENU BEREZIA
OTSAILAK 10,11,12 ETA 14AN

- Ahate-gibelezko blok-a erregesagar fruitu konfitura, mahaspasa eta intxaurrezko ogiarekin
- Txangurro eta barazki hostorea zigala saltsarekin
- Zapo eta Otarrainxka broxeta
- Fruitu tropikaldun sorbetea
- Idi-takoa Idiazabalgo Gazta Saltsarekin edo arraina aukeran
- Aukera zabala gozoetan
- Ura, Iratxe krianza ardoa

Inauteritako menuak ere baditugu,
mozorro hoberenarentzat saria egongo da

25€

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Urtarrileko irabazlea:
ROSA GALA

Otsaileko saria:
**MINIPLANTXAK
ETA ILEA
BABESTEKO
SPRAIA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Erreminta makinaren historiaren gaineko lekukotzak bilduko ditu herritar talde batek

Ekimenak IMHren eta Makina Erreminta Museoaren babesa jaso du

Elgoibarko makina erremintaren historian protagonista izan direnen lekukotzak biltzeari ekingo dio aurki herritar talde batek. Ekimen horrek makina Erremintaren Museoaren eta IMH Makina Erreminta Institutuaren babesa jaso du, eta bildutako material guztia, ondare industrialaren parte den heinean, museoan bertan gordeko dute.

Pedro Andonegi, Pello Arrieta, eta IMH eta erreminta makinaren museoko kideez gain, Anton Bergarak, Luis Mari Zabaleta eta Miguel Angel Mugikak osatzen dute talde eragileak, eta Elgoibarko Makina Erremintaren Historizaleak izenarekin hasiko dira lanean. Otsaila lan plana diseinatzeko hartuko dute, eta luze ez dela ekingo diote testigantzak grabatzeari. Izan ere, erreminta makinaren historiaren



Edurne Bilbao IMHko komunikazio arduraduna, Luis Mari Zabaleta, Anton Bergara, Pedro Andonegi, Miguel Angel Mugika, Pedro Ortuondo Makina Erreminta Museoako zuzendaria, Pello Arrieta, eta Joxean Egaña IMHko zuzendaria.

gaineko idatziak egon badauden arren, sektore horretan lanean jardundakoen bi- zipenak apenas dauden jasota. Ahozko lekukotzak bilduko dituzte, eta "ahalegin berezia" egingo dute protagonista eus-

kaldunak topatzen. Izan ere, haien bidez, Elgoibarko euskara ere jasota geldituko dela uste dute ekimenaren bultzatzaileek. Lerro hauen bidez, herritarren laguntza eskatu dute.

Andonaegi dorretxearen azken aztarnak galdu dira San Frantzisko kalean erretako etxea botatzean



Andonaegi dorretxearen azken aztarnak galdu dira. San Frantzisko kaleko 32. zenbakian egon zen Andonaegi merkatarien etxea XVI. mendeko agiriaren arabera, eta dorretxetik gelditzen zen apurra bota dute, iaz erre zen etxea eraistean. Sutean erabat kiskali ziren etxearen zimenduak, eta hura botatzen hasi direnean bistaratu dira Andonaegi dorretxea izandako eraikinaren azken aztarnak, tartean harlanduzko zutabe bat. Arrabaleko etxe hau 24 miliairetan baloratu zuen Udalak 1614ko miliaren ebaluazioan, eta une hartan etxea eta dorrea zela zehaztu zuten. Hala ere, XVI. mendeko agirik aipatzen duten dorretxetik ezer gutxi kontserbatzen zen gaur egun, XX. mendearen lehen erdialdean berri- tuta zutela. Beheko solairuak eta izkinek harlandua gordetzen zuten; gainerakoan, ez. Altxolako dorretxea, Errebaleko dorretxea, Jauregietako errota eta San Frantzisko komentuko Santa Ana kapera aipatzen dira Andonaegitarren 1661eko ondasunen artean. Andonaegitarren dozena bat aldiz izan ziren Elgoibarko alkate, 1605etik 1736 bitartean.

‘Miaules’ obra ikusteko aukera izango da hilaren 19an, giza harremani buruzko komedia musikatua

16:30ean hasiko da, eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai

Vaiven taldeak *Miaules* antzezlanaren taularatuko du domekan zortzi, hilaren 19an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Dorleta Urretabizkaik zuzendu badu ere, Itziar Pascualek idatzi eta Gloria Sanchezek euskaratutako obra da. 7 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat prestatutako antzezlan da; komedia musikatu bat, baina ez musikala, zuzendariak berak esandakoaren arabera. 16:30ean hasiko da funtzioa, eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko txarteldegian.

Giza harremani buruzko gogoeta

Miaules katua (Iñigo Gastesi), neska nerabea (Oihana Mari-torena), katemea (Ainara Ortega) eta albaitaria (Kepa Errasti) dira obrako protagonistak. Kalean bizi den katu bat da Miaules. Neska, berriz, guztiaren kontra dagoen 16 urteko nerabe bat da. Katua kalean ikusi eta etxera eramango du, bere amaren gogoz kontra. Kaleko katua da Miaules, bizia eta oso azkarra, eta hasieran oso gustura izango da etxe berrian, baina denborarekin, etxea kartzela bilakatuko dela ohartuko da. Askatasunik gabe



ezin dela bizi ohartuta, etxetik alde egitea erabakiko du Miaules-ek. Antzezlanean katuak agertzen badira ere, gizakien arteko harremanen inguruko hausnarketa bultzatu nahi du antzezlan honek.

Elgoibarko 50 piano ikaslek hartu dute parte Andoaingo zarpigarren piano jaialdian



Joan den asteburuan Andoaingo ospatu zen zarpigarren piano jaialdian hartu zuten parte Elgoibarko 50 piano ikaslek eta horietako hiruk, jaialdian bertan banatu ohi diren ohorezko aipamenak jaso zituzten: Sofia Arregik eta Nora Mugertzak lau eskutara jotako pieza bati eskerrak jaso zuten aipamena, eta bakarkako kategorian berriz, Goizeder Arnedok jaso zuen aipamen berezia.

Asteburu osoko jaialdia izan ohi da Andoaingo eta Araba, Gipuzkoa, Nafarro eta Bizkaiko piano ikasleak batzen dira urtero. Aurten guztira 889 ikasle elkartu dira Andoaingo jaialdian.

Aingeru Guardako jaien harira bertso bazkaria antolatu dute Mendaron

Aingeru Guardako jai baztordeak bertso bazkaria antolatu du martxoaren 4rako. Bazkaria Aizpen egingo da, eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira bertsotan. Bazkari-tarako txartelak Txirristaka eta Ormola tabernetan eskura daitezke, 25 eurotan. Bazkaritara joan nahi duenak hilaren 24ra arteko epea dauka txartela erosteko.

Gazteen heziketari buruzko hitzaldia, hilaren 14an

Familia eta eskola, elkarren arteko eginkizuna izeneko hitzaldia eskainiko du Garbiñe Arrizabalaga pedagogoak, Elgoibarko Kultur Etxean. Herri Eskolako eta Institutuko guraso elkarteek antolatu dute hitzaldia, eta 18:30ean hasiko da.

Sanlo eskubaloi taldeko senior taldeak lehenengo eta bigarren postuetan daude Liga Txapelketan

Senior neskek zein mutilak mailaz igotzeko postuetan daude

J oan den asteburuan lortutako garaipenei esker, Sanlo eskubaloi taldeko seniorrak lehenengo eta bigarren postuetan daude, Ligan. Tecnifuelle nesken taldea sailkapen nagusiko liderra da, eta datozen hiru partidak “oso garrantzitsuak” direla azaldu dute klubeko arduradunek; izan ere, Elgoibarko neskek sailkapen nagusiko lehenengo lau sailkatuen kontra jokatu beharko baitute datozen asteetan. Alcorta taldeko senior mutilak, bestalde, puntu garrantzitsua lortu zuten Hondarribiko taldearen kontra berdindu ostean, eta sailkapeneko bigarren lekuan jarri dira. Liga txapelketa azken txanpan sartu da, eta Sanloko talde seniorrak mailaz igotzeko postuetan daude.

Euskal Liga

Euskal Ligari dagokionean, bestalde, jubenil neskek mailari eustea lortu dute, hortaz, datorren urtean berriz ere Euskal Ligan jokatu dute. Txapelketako bigarren fasea hastear da, eta Euskadiko Txapelketa jokatu dute. Elgoibartik IMH eta



Lauko taldeek hartuko dute parte. Lehenengo kanporaketan hiru partida jokatu beharko dituzte, eta talde bakoitzeko lehen bi sailkatuek jokatu dute final nagusiak.

Iparraldeko beteteranoen ligako partida jokatu dute bihar Mintxetan Realak eta Santanderrek



Arg.: www.realsociedad.com

Iparraldeko beteteranoen liga hasiko da bihar, eta Mintxetako futbol zelaian jokatu dute Realeko beteteranoek ligako estreinako partida. Santanderren kontra jokatu du bihar, 16:30ean hasita. Mintxeta izango da liga honetako Realaren zelaia, eta hortaz, biharkoa ez ezik, beste partida bat ere jokatu dute Mintxetan apirila inguruan, Logroñes taldearen kontra. Futbol jokalariz ezagunak izango ditugu bihar gurean. Besteak beste, Lutxo Iturrino, Iñaki Alaba, Santi eta Jon Bakero, Pikabea edo eta Idiakenez ikusiko ditugu bihar Mintxetan elastiko txuri-urdina jantzita. Bost euro balioko ditu helduen sarre-rak, eta umeek doan ikusiko dute partida.

Ezindu fisikoentzako bizikleta kiroldegian

Ezintasun fisikoak dituzten pertsonen spinnig egin ahal izateko bizikleta erosi berri du Kirol Patronatuak.

Ezintasun fisikoak dituen pertsona batek eskaera egin ostean hartu du Patronatuak bizikleta erosteko erabakia. Probatu ere egin du eskaera egin zue-nak, eta probarekin gustura geratu dira erabiltzailea eta kiroldegiko arduradunak.

Bizikleta berriak 2.000 euro inguru balio ditu; gaur egun Mintxetako spinnig gelan dauden gainerako bizikleten antzera.

Kirol Patronatuak adierazitakoaren arabera, bizikleta berria datorren aste-egongo da erabiltzeko moduan.

Arnoatera igoera jokatuko dute martxoaren 3an

4,5 kilometroko ibilbidea izango da

Aingeru Guardako jaien barruan, Arnoatera igoera antolatu dute bigarren urtez. Martxoaren 3an jokatuko da, goizeko 11:30ean hasita. Partaideek 500 metroko desnibela gainditu beharko dute, 4,5 kilometroko ibilbidean. Irteera Plaza auzoko autopistako zubipean izango da, eta han bertan eman beharko da izena, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago. Izenematea doan izango da.

Sariak

Antolatzaileek bi sari emango dituzte, hau da, lehenengo emakume eta gizonekoari kopa bana emango diete. Lasterketaren ostean, bestalde, mokadutxo egongo da partaide guztientzat. Nahi



duenak aldatzeko erropak eramateko aukera dauka, baina antolatzaileek jakinarazitakoaren arabera, ez da dutxarrik egongo.

Spinning saio berezia antolatu du Kirol Patronatuak biharko

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak spinning saio berezia antolatu du biharko. Ordu eta erdiko saioa bizia eta gogorra izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta horregatik, spinning saioetan eskarmentua dutenek edo zikloturistek parte hartu ahal izango dute. 10:30ean hasiko da kirol saioa, eta 12:00etan amaituko da. Patronatuko bazkideek 5,75 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, zortzi euro. Informazio gehiagorako Olaizaga kiroldegira edo Mintxetako harrerara jo daiteke.

Mendi segurtasunerako jardunaldiak antolatu ditu Morkaiko mendizale elkarteak

Mendian seguru ibili eta arriskuak ahalik eta gehien murrizten ikasteko, bi jardunaldi antolatu ditu Morkaiko, Euskal Mendizale Federazioaren laguntzarekin. Lehengoa atzo izan zen: Zuriñe Foronda Euskal Mendizale Federazioko medikuak mendian tentuz ibiltzeko hainbat gomendio eman zituen. Bigarren hitzaldia datorren ostegunean izango da, hilaren 16an, eta Jon Beaskoetxea Goi Mendi Eskolako irakasle eta federazioko sorospen taldeko kidea izango da hizlaria. Hitzaldia 18:30ean izango da, Kultur Etxeko sotoan. Antolatzaileek jakinarazi dute izena ematea beharrezkoa dela, beraz, jardunaldian parte hartu nahi izanez gero, ondorengo telefonora deitu daiteke: 627 680 119.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Santutxu 0 (3. maila)

Elgoibar 1 – Zarautz 2 (Kad. A)

Ikasberri 1 – Elgoibar 5 (Kad. B)

Elgoibar 2 – Anaitasuna 2 (Ohorezko inf.)

Elgoibar 7 – Touring 0 (Neskak)

PILOTA

Udalberri Txapelketa

Lagunak 20 – Zestoa 22 (1. mailako nag.)

Usurbil 22 – Lagunak 14 (1. Jub.)

Lagunak 25 – Idiazabal 24 (Pala)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 6 – Kirol Sport 4 (2B)

Azpetitiko 4 – King Kong Elg. 3 (Jub.)

ESKUBALOIA

Corazonistas 24 – Alcorta Elg. 24 (Sen. mut.)

Tecnifuelle Elg. 31 – Urdaibai 16 (Sen. nesk.)

Leizaran 23 – Beristain Elg. 14 (Jub. mut.)

Grupo Eibar Elg. 26 – Eibar 27 (Kad. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 11

13:00 King-Kong – Egintzal (Jub.)

16:00 Concepto Egile – Castro (2B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 11

12:00 Elgoibar – Mutriku (Kad. B)

16:30 Real Sociedad – R. Santander (Beteranoak)

18:45 Elgoibar – Urola (Ohorezkoak)

Domeka, 12

10:00 Elgoibar – Lagun Onak (Aleb.)

12:00 Elgoibar – Lazkao (Inf. txiki)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 11

10:15 Aterpe Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)

11:30 Lauko Elg. – Usurbil (Jub. nesk.)

18:00 Beristain Elg. – Arrasate (Jub. mut.)

19:30 Alcorta Elg. – Usurbil (Sen. mut.)

Domeka, 12

9:45 Txarriduna Elg. – Pulpo (Inf. mut.)

11:00 Bankoa Elg. – Pulpo (Inf. mut.)

12:15 Astigarraga Elg. – Ereintza (Kad. nesk.)

PILOTA

Barixakua, 10

21:30 Lagunak – Alde Zaharra (2. mailako kad.)

22:00 Lagunak – Batzokiko (Pala)

Domeka, 12

11:00 Lagunak – Intxurre (1. mailako jub.)

12:00 Lagunak – Añorga (1. mailako jub.)

LANA

ESKAERA

- LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika eskolak eta kontabilitateko eta finantza kudeaketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ **666 042 710**
- Emakumeak lana behar du. ☎ **689 273 664**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **943 742 282**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **659 813 048**
- Emakumea garbiketa lanak (taberna edo elkarteetan) edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **698 632 922**
- Emakumeak gauzez nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentzia onekin. ☎ **659 612 096**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan arituko nintzateke, interna edo orduka. ☎ **633 150 376**
- Emakumeak interna edo orduka egingo luke lana. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ **650 152 866**
- Zerbitzari moduan lan egingo nuke; esperientzia daukat. ☎ **659 030 193**
- Etxeko lanak eta garbiketak egiten lan egingo nuke. ☎ **618 058 757**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Goizez. ☎ **635 313 375**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxex etxe. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**

- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteaz zehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **638 338 816**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Etxea alokatzen dut Mendaron. Bi logela ditu eta igogailua. Eguzkitsua da. ☎ **658 379 393** (17:00-19:00 bitartean deitu)
- Bi logelatako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **618 734 000**
- Etxea alokatzen dut Santa Klara auzoan. 5. pisuan, bi logela, eguzkitsua, igogailuarekin eta altzariekin. ☎ **645 048 110**

- Hiru pertsonako familiarentzako etxea alokatuko genuke. ☎ **618 058 757**
- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **635 313 375**
- Merkataritzarako edo biltegi moduan erabiltzeko 35 m2ko lokala alokairuan. Komuna dauka. ☎ **609 360 627**

BESTELAKOAK

- Herri-Gain elkartearen hiru bazkide berrientzako lekua dago. Interesatuak jarri daitezela gurekin harremanetan. ☎ **607 877 225**
- Gaztetxerako sukaldako tresna elektrikoak behar ditugu. Deitu eta Gazte Asanbladako kideok joango gara bila. Eskerrik asko! ☎ **677898633**

KINTOAK

- 1969an jaiotako Aita Agirreko ikasle ohien bazkaria otsailaren 25ean. 50 euro sartu behar dira 3035 0007 26 0071030029 kontuan izen abizenekin otsailaren 22a baino lehen. ☎ **667 711 226 / 618 384 303**

LAN DEIALDIA

DEBABARRENEAN KOKATUTAKO MAKINA ERREMINTAN DIHARDUEN ENPRESAK TEKNIKO KOMERTZIALA BEHAR DU

- ◆ Hidraulika eta neumatikan 3 urteko esperientzia komertzial edo muntatzaile bezala.
- ◆ Euskara menperatu eta ingelesaren ezagutza izatea.
- ◆ Gidatzeko baimena eta ibilgailu propioa.
- ◆ Aurkeztutako profil pertsonal eta profesionalaren araberrako ordainsaria.
- ◆ Interesatuak bidal dezala curriculuma tecnico.comercial4@gmail.com helbide elektronikora.

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENeN edo www.elgoiBARREN.net webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B ARREN
astekarian
943 744 112





• **Malen**, 3 urte potolo igandean! Zorionak eta patxo handi bat guztion partez. Muaaaa!




• Zorionak, **Nora**, astelehenean 9 urte egin zenituelako. Familiako en eta bereziki, aitaren eta ahizpa Aneren partez.



• Zorionak, **Saray**, igandean 18 urte egingo dituzulako. Familiako en eta bereziki, gurasoen, Fabianen eta ahizpa Eiderren partez.



• Zorionak, **Naroa**, atzo 5 urte egin zenituelako. Familiako en eta bereziki, Danelen eta Juneren partez. Muxu handi bat.



• Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zaaaaazpi! Egin putz! Zorionak, **Txarli**.



• Zorionak, **Jokin**, asteartean 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etzekoen eta bereziki, Maddiren partez.



• Zorionak, **Goiatz**, zure seigarren urtebetetzeari. Ondo pasa! Besarkada handi bat, bereziki, Arhane, Sugar eta Intzaren partez.



• Zorionak, **Irati**, ostegunean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, gurasoen eta Uxueren partez.



• Zorionak, **Olatz**, otsailaren 8an 3 urte egin zenituelako. Muxu pila bat, etzekoen eta bereziki, Izaroren partez.



• Zorionak, **Leire**, etxeko denon partez.

• Zorionak, **Eneko**, zure bosgarren urtebetetzeari. Familiako en eta bereziki, arreba Joneren partez. Ondo-ondo pasa!

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Otsailaren 14an, asteartean,
SCALEXTRIC txapelketa ludotekan.
17:30etik aurrera!



Larunbata, hilak 11,
Gaztelekua **17:00 etatik 19:00etara**
egongo da **irekita**.

10 barixakua

Antzerkia

20:30 'La lechuga'

Glu Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

11 zapatua

Tailerra

10:00 Bioenergetika

Haizea emakume taldeak antolatuta, Kultur Etxean.

Autobusa

16:30 Manifestaziora autobusa

"Aldaketa sozialaren alde eta erreforma liberalaren aurka" Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta Alternatibak deitutako Donostiako manifestaziora joateko autobusa King-Kongen.

Musika

19:00 Hip Hop festa

Ramtay eta El Puto Ima zuzenean eta mikro librean Iratxo tabernan.

12 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren

kontzertua

Herriko Antzokian. Zuzendaria: Txomin Mujika.

1. *El invierno* (A. Vivaldi).
2. *Candide* (L. Berstein).
3. *The cream of clapton* (Clapton-Sebregt).
4. *West side story* (Berstein-Iwai).
5. *El camino real* (A. Reed).

Torturaren aurkako eguna

19:00 Bideo emanaldia

Tortura Euskal Herrian izeneko bideoa eskainiko dute, Ezker Abertzaleak antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

14 martitzena

Hitzaldia

18:30 Gurasoen

prestakuntzarako jardunaldiak

Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, *Familia eta eskola, elkar arteko eginkizuna* hitzaldia eskainiko du Garbiñe Arrizabalagak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 eguena

Tailerra

18:30 Mendi Segurtasuneko

tailerra

Jon Beaskoetxea Mendizale Federazioko Sorospen Taldeko partaidearen eskutik, Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

OKINDEGIA

12 domeka IBARRENEA

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

10	Ibañez	Etxeberria
11	Garitaonandia	Garitaonandia
12	Garitaonandia	Garitaonandia
13	Etxeberria	Etxeberria
14	Fernandez	Barrenetxea
15	Yudego	Yudego
16	Zabaleta	Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Sherlock Holmes: juego de sombras»

11, zapatua: 19:00/22:15

12, domeka: 19:00

13, astelehena: 21:30



«Sherlock Holmes: juego de sombras»

Zuz.: Guy Ritchie. EEBB, 2011. 129 min. Thriller. Robert Downey Jr., Jude Law. Sherlock Holmes gizon azkarra da, baina bera baino bizkorragoa den pertsonai batekin topo egingo du oraingoan: Moriarty profesorea. Gizon maltzurra da, eta beti doa Holmes eta Watson baino pauso bat aurrerago. Nahikoa lan izango dute gaizkilea harrapatzen.

«Melancolía»

Zuz.: Lars von Trier. Danimarka, Suedia, Frantzia, Alemania eta Italia, 2011. 139 min. Drama ciencia-Kirsten Dunst, Charlotte Gainsbourg, Kiefer Sutherland.

Justinek eta Michaelek sekulako festa emango dute emaztegiaren ahizparen etxean, euren ezkontza ospatzeko. Bitartean, Melancolia izeneko planeta, Lurrera gerturatzen ari da.

«Alvin y las ardillas 3»

12, domeka: 16:30

«Melancolía»

Ongarri zinekluba

16, eguena: 21:30



ESKERTZA

ANTONIA EGAÑA ALBERDI

2012ko urtarrilaren 31n hil zen, 99 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

SEBASTIAN ETXEBERRIA AGOTE

2011ko otsailaren 11n hil zen, 85 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 11,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



II. URTEURRENA

JOXE MARI BETELU AZURMENDI

*Gure ondotik joan zifien
baiña gure bihotzetatik ez,
beti izango zaittugu gogoan.*

Etxekoak



ESKERTZA

NIKOLAS ZULAIKA UNZUETA

2012ko otsailaren 5ean hil zen, 88 urte zituela.
Haren oroimenez, meza izango da, domekan, otsailaren 12an, 12:00etan,
Garagartzako elizari. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

NIKOLAS ZULAIKA UNZUETA

*Garagartzako elizpian,
Presapen, arbolapian
makulua eskuan ta
txapela beti buruan
hor zuaz astiro, aitxitxa
eguneroko planian
koskortzian juan behar giñen
Lizarrolara karruan*

*han mokadutxua egin eta
bueltakua zure altzuan,
baiña bazuaz betiko
ni hasi orduko pausuan
izar bat han piztu da gaur
Garagartzako kantoian
patxo bat amamari ta
zaude goxo-goxo lotan*

2012ko otsailaren 5ean hil zen Mendaron,
88 urte zituela.

*Luken
(Doinua: Habanera)*



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA